

## ARTURO



### LIBURUAREN FITXA

TAEGER, Oli eta Marc. *Arturo*. Pamiela-Kalandraka, 2011

#### Aurkezpena

Album ilustratu honek kontatzen du txita batek arrautza oskolean pasatzen dituen azken egun estuak eta jaiotza ondorengo lehenengo larritasunak. Jaio aurretik haurrak eta txitak deseroso daude, handiegiak dira amaren tripan edota arrautzaren barnean egoteko. Baina jaiotzen direnean ere, ez dute oso ondo pasatzen: dena arrotza zaie, negar asko egiten dute, eta ia ez dakite ezer egiten.

#### Kontaketa

- Testua irakurri edota kontatu orriz orri.
- Ilustrazioak banan bana behatu eta komentatu ikasleekin, kontatzen dugun bitartean.
- Itxuraz gogorak badira ere oso adierazkorrak dira kontatzen dutenerako.
- Jaio berriaren bakardadea eta angustia erakusten dituzte beltzuneekin batera.
- Amaren babesarekin lasaitasuna islatzen da azken ilustrazioan.

#### Aukerako proposamenak

- Adin tarte desberdinetara egokitzeko aproposa da liburu hau eta bakoitzean aktibitate desberdinak garatzeko aukerak eskaintzen ditu.
- Aukera bat da haur jaio berri bat eta txita bat konparatzea.
- Zeinek ikasten du azkarrago: txakurrak, txitak, pertsonak...
- Gurasoen babesa behar dugu oso denbora luzean.

#### Proposamenak zehazten

- Gurasoen jaio berriko argazkiak, aitona-amonen besoetan.
- Gurasoek kontatu behar die nola jaio ziren eta noiz arte bizi izan ziren beren aitona- amonekin.
- Kontakizun horretan oinarritu norberak bere familiaren historia kontatzeko.